



PATROIAREN ARAUDIA/ KODE



elika 2010

I. ATALA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Araudiaren xedea da honako hauek ezartzea: Fundazioko Patronatuaren jardueraprintzipioak, erakundearen antolaketari eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko arauak, eta erakundea osatzen duten pertsonen jarrera-arauak. Horien guztien helburua da Gobernu Korporatibo Onaren printzipioei heltzea eta berorren kudeaketan ahalik eta eraginkortasun handiena izatea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Araudia Patronatuko kide guztiei aplikatuko zaie eta derrigor bete beharko dute; eta, era berean, Gerentziari ere aplikatuko zaie fideltasunari, leialtasunari eta lanbide-isilpekotasunari buruzko alderdi guztiei dagokienez.

Halaber, Araudia aplikatuko zaie, neurri handiagoan edo txikiagoan, berez eta edozein arrazoirengatik, administrazio ardurak hartzen dituzten pertsona guztiei ere.

3. artikulua. Indarrean sartzea eta aldatzea

Araudia indarrean sartuko da Patronatuan onesten den egunetik aurrera.

Lehendakaritzak edo Fundazioko Patronatuaren hiru kidek hala eskatuko balute, Patronatuari legokioke aldaketak egitea Araudian, betiere kargua betetzen duten bitartean eta beharrezkoa edo komenigarria dela iritziz gero.

Araudia aldatzea eskatzeko, arrazoiak aurkeztu beharko dira. Gauzak horrela, eskaera egiten duten pertsonak kausak zurrizko txostena ere aurkeztu beharko dute testuarekin batera, bai eta proposatzen den aldaketak norainoko eragina izango duen ere.

Araudia aldatzeko proposamena aztertu eta erabakitzeko, bilera-deia egin beharko da. Bilera-deia Patronatua bildu baino hamabost egun natural lehenago bidali beharko da. Eta bilera-deiarekin batera, proposamenerako testua eta arrazoizko txostena ere aurkeztu beharko dira.

4. artikulua. Interpretatzea

Araudia interpretatu beharko da aplikatzekoak diren lege- eta estatutu-arauekin bat datorrela.

Gobernu korporatiboak oinarritzko hiru betebeharrak ditu: informazioa ematea, gardena izatea eta segurtasuna bermatzea. Hiru printzipio horiek ezinbestekoak izango dira arauak interpretatzean.

Fundazioko Patronatuari dagokio Araudia aplikatzetik sor litezkeen interpretazio-zalantzak argitzea.

5. artikulua. Zabaltzea

Patroiek eta Gerentziak, aplikatu ahal zaien guztietan, Araudia ezagutu, bete eta betearazi egin beharko dute. Gauzak horrela, Patronatuaren idazkariak Araudiaren kopia bana emango die kideei izendapena onartzen duten unean bertan.

II. ATALA

PATRONATUAREN OSAKETA

6. artikulua. Osaketa

Fundazioko Patronatua gehienez hamalau (14) kidek osatuko dute. Kide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte, eta indarrean dauden lege eta estatutu- eta aginduei heldu beharko diete.

Era berean, eta baldintza egokiak suertatuz gero, kide berriak izendatu ahal izango dira Fundazioaren Patronatuak berak egoki iritziz gero; horretarako, Fundazioaren presidentek izendatu beharko ditu kide berriak.

Patronatuaren kide berriak proposatu behar direnean, eta administrazioko organoan lehenetsuneko interesak une orotan bermatze aldera, Patronatua ahaleginduko da hautagai berrietarako proposamen horietan pertsona ohoretsuak, egokiak eta kaudimen ezaguna eta gaitasun zein eskarmentu nahikoa dituztenak egon daitezela. Eta, era berean, Patronatuak egiaztatuko du pertsona horiek ez dutela bateraezintasunik eta ez dietela kontra egiten Fundazioko Araudian edo Estatutuetan zehazten diren debekuei.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, eta indarrean dagoen legediari jarraiki, Patronatuko patroiak ahaleginduko dira emakumeen eta gizonezkoen presentzia orekatua izan dadila Patronatuaren osaketan, (kideen %40 emakumeak izango dira, otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorrira, Emakumeen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako Legearekin bat etorrira, alegia).

Artikulu honetan xedatutakoa ulertu beharko da inolako kalterik egin gabe Fundazioko Estatutuetan modu legalean zehaztutakoari, hau da, artikulu honetan xedatutakoa bateragarria izango da modu proportzionalean ordezkaturia izateko eskubidearekin.

Halaber, eta egoera zehatz baterako egokia izanez gero, aholkulari juridiko bat izendatu ahal izango da Patronatuaren baitan hartutako akordioei lege-balioa bermatze aldera.

III. ATALA PATRONATUAREN EGITURA

7. artikulua. Patronatuaren lehendakaritza

Fundazioaren presidentea eta presidenteordea izendatuko ditu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako sailburuak, edo berori ordezkatu ahal duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailen batek.

Presidenteak egokia dela ikusten duenean, berari dagokio Patronatua biltzeko deia egitea - gutxienez urtean bi aldiz - bileraren gai-zerrenda zehaztea eta eztabaidak bideratzea.

Presidenteak honako ardura hauek izango ditu:

Patronatuaren kide guztiak bileretara joan daitezela saiatzeari; horretarako, Araudiak zehazten duen moduan eta epeak errespetatuta, bilera-deiak bidaliko dizkie kideei.

Patroiak bileretara joan ez izanaren arrazoiak egiaztatzea, baldin eta behin eta berriro joaten ez badira bileretara.

Patronatuak ondo funtzionatzen duela, bileretatik ateratako hobekuntza-proposamenak abian jartzen direla edo antzemandako gabeziak zuzentzen ari direla gainbegiratzea.

8. artikulua. Patronatuaren lehendakariordetza

Fundazioaren presidenteordea izendatuko du Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzarako sailburuak, edo berori ordezkatu ahal duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailen batek.

9. artikulua. Patronatuaren idazkaritza

Patronatuak idazkaria izendatu ahal izango du bere kideen artean edo bere kideetatik kanpo. Idazkariak Fundazioko lan administratiboak hartuko ditu bere gain, dokumentazioa babestuko du eta bileretako aktak jasoko ditu. Akta horiek Akten Liburuan idatziko ditu behin presidenteak oniritzia eman eta gero.

Idazkariak presidenteari lagunduko dio bere eginkizunetan, eta patroiei aholkularitza zerbitzua eta beharrezko informazioa eskainiko dizkie. Halaber, dokumentu sozialak zainduko

ditu, bileretako nondik norakoak akten liburuetan modu zehatzean jasoko ditu eta giza akordioak egiaztatuko ditu.

Idazkariak beti zainduko du funtzionamendu-arauak betetzen direla, eta Fundazioko Patronatuaren barne funtzionamendua erregulatzeko dituzten prozedurak era egokian garatzen direla.

Idazkariak bere gain hartuko du aktak jaso eta sinatzeko prozedura osoa, bai eta akta horiek ondoren Patronatuaren kide guztiei bidaltzea ere.

Idazkariak aplikatu egingo ditu Fundazioaren dokumentazioa eta liburu ofizialak zaintzeko arauak, bai eta barne auditoretzan ateratako emaitzak ere.

10. artikulua. Batzorde exekutiboak

Patronatuak batzorde delegatuak eta exekutiboak eratu ahal izango ditu, eta kasu bakoitzean zehaztuko du zein ahalmen dituen bakoitzak. Era berean, Patronatuak ahaldu orokorrak eta bereziak izendatu ahal izango ditu, eta berorien funtzioak mankomunatuak edo solidarioak izango dira.

Batzorde iraunkorra organo delegatu gisa osatuko da, eta funtzio nagusi hauek izango ditu:

- a) Fundazioaren jardun-lerroak eta jardun-norabideak proposatzea epe laburrean zein ertainean.
- b) ELIKako funtzio-markoaren barruan garatzen diren proiektuen eta ekintzen jarraipena egitea, eta fundazioaren helburuak betetzen direla zaintzea.

Batzorde iraunkorra honako hauek osatuko dute: Patronatuaren presidenteak, presidenteordeak eta Fundazioaren Patronatuak beren-beregi izendatutako patroietako bik.

Batzorde iraunkorra hiru hilean behin bilduko da, eta presidenteak deituko du. Bilera horietan honako ekintza hauek gauzatu dira: jarraipena egitea eta ebaluatzea kudeaketa planaren zatia zein neurritan exekutatu den; adierazle zenbaki nagusiak berraztertzea; eta, hala balegokio, hartu beharko lirakekeen erabaki zuzentzaileak hartzea. Horrela, kontseilu aktiboak izango da, eta konpromisoa izango du Fundazioak zehaztutako politikak gainbegiratzearekin.

Edozein kasutan ere, batzorde exekutiboaren esku ezin izango da utzi inoren esku uzten ez den ahalmenik, ez eta gainbegiratze orokor eta arduratsuaren barru-barruan berez dagoen ahalmenik ere, horiek Patronatuaren konpetentzia baitira.

Batzorde exekutiboak Kontseiluari informazioa helarazi beharko dio bileretan eztabaidatutako gaiak eta hartutako erabakiez, eta bilera horietako aktak jaso beharko dira Patronatuak aldeztatik zehaztutakoaren ildotik.

IV. ATALA PATRONATUAREN EGITEKOAK

11. artikulua. Patronatuaren eskuduntzak

Patronatua da erabakiak hartzeko, kontrola eramateko eta ordezkaritzarako organo gorena.

Patronatuaren politika da, batetik, Fundazioaren ohiko kudeaketa lanak Batzorde Iraunkorrari eta Gerentziari ematea; eta bestetik, bere jarduna gainbegiratze orokorrean kontzentratzea.

Hala ere, ezin izango dizkie horiei eman Patronatuari berari dagozkion lege-ahalmenak edo estatutuan jasotakoak, ez eta gainbegiratze orokor eta arduratsuari atxikita dagoen ahalmenik ere.

Fundazioaren Estatutuetan jasotako ahalmenez gain, Fundazioaren Patronatua honako hauetaz ere arduratuko da:

- Fundazioaren Plan Estrategikoa onestea, eta aldian-aldian egiaztatzea zein gradutan garatu den eta zein neurritan aplikatu den modu eraginkorrean.
- Urteko kudeaketa plana onestea - horren barruan, aurrekontuen proposamena ere jasoko da - eta ebaluazio partzialak egitea kudeaketa planaren exekuzio mailaz.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (RSC) politika onestea, eta, ildo beretik, kontrol zein gainbegiratze funtzioak garatzea; horrela, neurtu ahal izango da zein gradutan aplikatzen den politika hori Fundazioan.
- Arriskuak Kontrolatu eta Kudeatzeko Politika onestea. Politika horrek arriskuen mapa jaso beharko du; eta, era berean, identifikatu beharko du zein gradutakoa den antzemandako arriskuekiko esposizioa.
- Kontratazio prozedurak erregulatzeko jarraibideak onestea. Horrela, printzipio hauen eraginkortasuna bermatu egingo da: publikitatea, aldibereotasuna, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta baztertua ez izatearena.

Halaber, Patronatuaren bileretan sor litezkeen gatazkak bideratzeko, Patronatuak epailelanak egingo ditu gatazkak ebatzi behar izatekotan. Xede horretarako, sor litezkeen gatazkak bideratzeko aitorten indibiduala egin ahal izango da; eta, horrez gain, aipatutako gatazkak konpontzeko, jarraitu beharreko deskripzioa ere egin ahal izango da.

12. artikulua. Fundazioaren egoerari buruzko informazioa

Patronatuaren bileretako gai-zerrendetan, puntu bat jaso beharko da Fundazioaren egoera ekonomikoa eta finantza-egoera azaltzeko.

13. artikulua. Inbertsiorako erabakiak hartzeak izan dezakeen inpaktu soziala eta ekonomikoa

Inbertsioen memorian, Patronatuaren onespena behar izatekotan, inbertsiorako erabakiak hartzeak izan dezakeen inpaktu soziala eta ekonomikoa jaso beharko da. Eta bilera horretako aktan islatu beharko da nolako balorazioa egiten duen Patronatuak alderdi bakoitzari buruz.

IV. ATALA PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDUA

14. artikulua. Patronatuaren bilerak

Patronatuak, ezinbestez, urtean bitan egingo ditu ohiko bilerak, sei hilekoan behin, alegia; baina, horietaz gain, ezohiko bilera gehiago ere egin ahal izango ditu.

Bilera horiek deitzeko, errespetatu beharko da zehaztutako denbora eta modua; eta legeak agintzen duen moduan deitu beharko dira alde zuzenetik. Horrez gain, beharrezko dokumentazioa eta kideren baten botoa besteren baten esku uzteko dokumentua ere erantsi beharko dira (kide hori bileretara joan ezin denean erabiltzeko).

Urteko lehenengo bileran, lehenengo sei hilekoaren barruan egingo den horretan, aurreko urteari dagokion Auditoretzaren aldeko txostena aurkeztu beharko da berari onartu dadin. Halaber, urteko aurrekontuak aurkeztu beharko dira, eta sei hileko horretan Fundazioak aurrera eramandako ekintzak ere azaldu beharko dira patroiak jakitun egon daitezela.

Urteko bigarren bileran, aldiz, kudeaketa plana eta hurrengo urterako aurrekontua aurkeztu beharko dira.

Hala eta guztiz ere, presidentek Patronatu deitu beharko du berori osatzen duten pertsonen heren batek horrela eskatuko balute.

Eta, halaber, Patronatuak ezohiko bilerak egingo ditu, Patronatuaren funtzionamendu egokirako presidentek beharrezkoa dela iritziz gero.

Bilera ohikoetarako deia gutunaren, faxaren edo posta elektronikoaren bidez egingo da, eta presidentek berak egingo du.

Bilera-deia gutxienez bilera bera egin baino hamar egun natural lehenago egin beharko da, deia gutunaren bidez egiten bada. Posta elektronikoaren bidez eginez gero, zazpi egun natural lehenago egin beharko da, eta kasu batean zein bestean patroik bakoitzak zehaztutako helbidera bidali beharko da. Bilera-deiak beti jaso beharko du bileraren gai-ordena, bai eta horretarako beharrezkoa den informazioa ere.

Bilera-deian agertu beharko da gutxi gorabehera zenbat denborako bilera izango den. Nahiko denbora utzi beharko baita gai-zerrendako puntu guztiak behar bezala azaltzeko, behar besteko sakontasunaz azaltzeko, alegia. Eta, horrez gain, norberak eraman litzakeen gaietarako eta galderetarako ere nahiko denbora utzi beharko da.

Patronatuaren ezohiko bileren kasuan, edo telefonoz edo korreo elektronikoz jakinarazi ahalko da bilera-deia, baina betiere bilera egin baino zazpi egun lehenago egin beharko da. Aurreko paragrafoan zehaztutako gainontzeko betekizunak ez dira beharrezkoak izango, baldin eta presidenteak hala iritiz gero.

Fundazioko Patronatuaren bilerak helbide sozialean egingo dira oro har. Baina, presidenteak hala iritiz gero, beste lekuren batean ere egin ahal izango dira. Horretarako, bilera-deian zehaztu beharko da lekua.

Patronatuko bilerak egin ahal izango dira bilera-deirik egin gabe, baldin eta Patronatuaren kide guztiak bileran egonez gero edo ordezkaturik izanez gero eta aho batez ados daudela adieraziz gero.

15. artikulua. Bileren garapena

Fundazioaren Patronatua bilera egiteko deituko da eta edozein gai aztertzeko eratu da, baldin eta horretarako kide guztiak bertan badaude eta Patronatua biltzea aho batez adosten badute.

Patroiek bertaratu beharko dute Patronatuaren bileretara; eta joan ezingo balira, besteren bati eskatuko liokete ordezkaturik izateko. Ordezkaturik izateko, idatzizko dokumentu bat aurkeztu beharko dute, eta bertan adieraziko dute botoa beste horri emango diotela. Zalantzarik egonez gero, presidenteak erabakiko du zer nolako balioa duen patroiek aurkeztutako ordezkari-taldea.

Patroiek bileretara joaten ez badira behin eta berriro eta arrazoia zuzitzen ez badute, kasu horietarako zehaztuta dauden zigorrak hartuko dira. Eta beharrezkoa izanez gero, patroiek postuari uzteko proposatuko zaie.

Presidenteak eztabaida hori bideratuko du, eta patroik guztiek organoaren erabakietan parte har dezaten ahaleginduko da, bai eta parte hartze hori sustatzen ere. Era berean, gaiak nahiko eztabaidatu direla irizten duenean, bozketak proposatuko du.

Fundazioaren estatutuek edo legeak bestela eskatzen ez badute ere, akordioetara heltzeko nahiko izango da gehiengo absolutuaren botoekin, bai patroiek eurak bilerara bertaratu bai ordezkaturik izanda. Presidenteak, edo bere ordezkariak, kalitatezko botoa izango du berdinketa egonez gero erabakiak hartu ahal izateko.

Patroi bakoitzak boto bat izango du, bai bilerara bertaratu bada bai ordezkaturik izan bada.

16. artikulua. Fundazioko Patronatuaren aktak

Fundazioko Patronatuaren akta idazkariak idatziko du. Idazkaria egon ezik, bileran bertan Patronatua erabakitako patroiek egingo ditu idazkari lanak. Patroi horrek akta jaso, sinatu eta protokolo guztiak zehazten dituen prozedura hartu beharko du bere ardurapean. Era berean, akta bidali beharko die Patronatuko kide guztiei bilera izan eta hurrengo 10 egunen buruan, bertaratuak guztiek ekarpenak egin ditzaten.

Akta Patronatua berak onetsiko du hurrengo bileran.

VI. ATALA PATROIAK IZENDATZEA ETA KARGUAK UZTEA

17. artikulua. Patroiak izendatzea

Patroiak kargua onesten duten momentutik, konpromiso dokumentua (I. eranskina) sinatu beharko dute. Dokumentu horren bidez, konpromisoa hartuko dute bete egingo dituztela legeak zein Fundazioaren gobernu onaren arauak ezartzen dituzten betebeharrak; izan ere, betebeharrak horiek bermatu egiten dituzte gardentasunaren eta independentziaren oinarriko printzipioak.

Patroiak izendatu eta gero, enpresak aurkezpen bat egingo die eta araudi hau jasoko dute, bai eta Fundazioaren estatutuak ere. Horrez gain, etengabeko prestakuntza-plana eskainiko zaie, enpresaren egungo egoera zein den jakin dezaten une orotan.

18. artikulua. Patroiak karguan irautea eta karguak uztea

Patroiak kargua utziko dute izendatuta izan diren epea behin iraungiz gero edo Patronatuak hala erabakiz gero - lege bidez eta estatutuen bidez dituen eskumenei esker - .

Patroiak beren kargua jarri beharko dute Fundazioaren Patronatuaren esku; eta, Patronatuak egokia dela iritziz gero, dimisioa formalizatu ahal izango du kasu hauetan:

- a. Lege aldetik bateraezintasunik edo debekurik gertatuz gero.
- b. Patroi lanetan, betebeharrak huts eginez gero.
- c. Patronatua jarraitzeak Fundazioaren interesak arriskuan jarri ahal dituzte.

VII. ATALA PATROIAREN BEHARRAK (KODE DEONTOLOGIKOA)

19. artikulua. Jarrera irizpideak

Patronatuaren jardura guztietan honako irizpide hauek egon beharko dira presente:

- a. Fundazioaren xedeak betetzea.
- b. Fundazioaren bideragarritasuna defendatzea.
- d. Fundazioaren balioa areagotzea.

Hori guztia lortzeko, momentuan dauden baliabideak era egokienean kudeatu beharko dira. Eta fede onez bete beharko dira langileekin, hornitzaileekin eta Fundazioaren kideekin adostutako hitzarmenak; eta, oro har, Fundazioa bide arduratsutik doala zaindu beharko da.

Korporazioaren antolakuntza arloan, Patronatuak hartu beharreko neurriak hartuko ditu bermatzeko Fundazioaren zuzendaritza Patronatuaren begirada eraginkor pean dagoela.

20. artikulua. Patroiaren betebeharrak orokorrak

Patroiaren betebeharrak da Fundazioaren kudeaketa lana bideratu eta kontrolatzea, gero eta balio handiagoa izango duela bermatzeko.

Betebeharrak aurrera eramateko, patroiak arduraz jokatu du interes sozialak lortze aldera. Eta, era berean, Fundazioarekiko leialtasunez jokatu du. Gauzak horrela, derrigortuta egongo da honako hauek betetzera:

- a. Beharrezkoak diren denbora eta ahaleginak eskainiko dizkio Fundazioari, honen administrazioak proposatzen dituen gaiak era eraginkorrean jarraitu ahal izateko; eta horretarako beharrezkoa den informazioa bildu beharko du.
- b. Patronatuaren bileretara joan beharko du konpromiso pertsonal gisa, eta erabakietan parte hartuko du era aktiboan. Horrela, berak duen iritzia eraginkorra izango da erabakiak hartzeko momentuan.
- c. Fundazioaren Patronatuak agintzen dion edozein lan bete beharko du, betiere dedikazio-konpromisoarekin bat etorritik gero.

- d. Fundazioaren kudeaketan ager litezkeen irregulartasunak ikertu beharko ditu eta arrisku egoerak zaindu.
- e. Oro har, legeak eta araudiek zehaztutako betebeharrak bete beharko ditu interes sozialari dagokionez. Eta legearen, araudi sozialen edo interes sozialaren kontrako akordioei uko egin beharko die. Era berean, kontra agertuz gero, aktan jaso dadila eskatu beharko du interes hori babeste aldera.

21. artikulua. Konfidentzialtasun betebeharra

Kargua utzi eta gero ere, patroiek sekretua gorde beharko dute konfidentzialak diren informazioei buruz. Eta, derrigor, isilpean gorde beharko dituzte datuak, txostenak edo ezagutzen dituzten informazio aurrekariak. Horrelako informazioa ezin izango diete hirugarren pertsonari jakinarazi, ez eta dibulgatu ere, interes sozialean eragin kaltegarria sorrarazi ahal dutenean.

22. artikulua. Gardentasun eta informazio betebeharra

Patroiek unean-unean informazioa helarazi egin beharko diote Patronatuari, erabakiak hartzeko eragina izan ahal duten gai zehatz guztiei buruz.

Fundazioak hala eskatuta, patroiak jakinarazi beharko dio Fundazioari zer nolako partaidetza duen jarduera bera edo antzekoa edo osagarria garatzen duten enpresa kapitaletan edo fundazio kapitaletan - Fundazioaren xede soziala baita - . Era berean, patroiak jakinarazi beharko dio Fundazioari zer nolako funtzioak betetzen dituen aipatutako partaidetza lanetan, eta zer nolako ekintzak partekatzen dituen - bai kontratupean, bai norberaren kontuan - Fundazioaren jarduera-genero bereko, antzeko generoko edo genero osagarriko ekintzetan. Eta, oro har, patroiak jakinarazi beharko dio Fundazioari edozein gertakizun edo egoera, betiere Fundazioaren administrazioarako garrantzitsua dela iritziz gero.

Orobat, patroiak jakinarazi beharko dio Fundazioari zer nolako aldaketak gertatu diren patroien horren lan egoeran, baldin eta aldaketa horiek baldintzatu egingo balute patroien lana edo eraginak Fundazioaren barruan, edo interes-gatazkarik sorrarazi ahal izango balute.

Horrezaz guztiaz gain, patroiak jakinarazi beharko dio Fundazioari zer nolako erreklamazio judizial, administratibo edo bestelakoetan egon den inplikaturik, baldin eta, horiek duten garrantziagatik, eragin kaltegarria izan badezakete Fundazioaren ospean.

23. artikulua. Interes-gatazka

Leialtasun betebeharra betetze aldera, patroiak saihestu egin beharko ditu interes-gatazka egoerak beraren eta Fundazioarekin harremana duten pertsonen artean. Hala gertatzekotan, eta egoera horiek ekidinezinak izango balira, horren berri eman beharko dio Fundazioaren Patronatuari. Zehatzago adierazita:

Patroiak uko egin beharko dio parte hartzeari berarekin lotura zuzena edo ez-zuzena duten gaitan, betiere horretarako erabakietan parte hartu behar badu.

Patroiak ezin izango dio Fundazioari eskaini lan zerbitzurik eta merkataritza zerbitzurik, ez zuzenean ez zeharka, ez baldin badu aldeztu aurretik jakinarazten interes-gatazka egoera sor litekeela eta Patronatuak zerbitzu hori onartzen badu.

Patroiak ezin du negozio-aukerarik aprobetxatu Fundaziotik, ez beraren probetxurako ez berarekin lotura duten pertsonen probetxurako. Negozio aukeratzat hartuko dira Patroiak karguaren ondorioz edo Fundazioaren bitartekoak edo informazioa erabiliz sortu edo ezagutu duen merkataritza inbertsio edo eragiketaren bat egiteko edozein aukera.

Patroiek eduki behar duten Fundazioarekiko leialtasun horretaz baliaturik, patroiek jakinarazi beharko dizkiote presidenteari gerta litezkeen abusuek edo lege-hausteak, bereziki tartean garrantzi handiko informazioa edo pribilegiozko informazioa egonez gero.

24. artikulua. Fundazioaren izena erabiltzea

Patroiak ezin izango du Fundazioaren izena erabili, ez eta esan Fundazioaren kide dela, norberaren kontuko operazioak egiteko, ez eta berarekin lotura zuzena duten pertsonen kontuko operazioak egiteko ere.

25. artikulua. Publikoa ez den informazioa

Fundazioaren publikoa ez den informazioa xede pribatuetarako erabili ahal izango da bakar-bakarrik Fundazioari kalterik ez egitekotan.

26. artikulua. Lotura duten pertsonak

Atal honen xedeetarako, patroiekin lotura duten pertsonak honako hauek izango dira:

a. Patroiarekiko pertsona fisikoak:

- (i) Patroiaren ezkontidea, edo antzeko harreman afektiboa izan lezaketen pertsonak.
- (ii) Patroiaren edo patroiaaren ezkontidearen familia aurrekoak, ostekoak eta neba-arrebak.
- (iii) Patroiaren familia aurreko, osteko eta neba-arreben ezkontideak.

b. Patroiarekiko pertsona juridikoak:

- (i) Patroiak eta pertsona juridikoa den patroiak dituen botere orokorreko ahalduak.
- (ii) Patroiaren ordezkariarekiko pertsonak, pertsona juridikoak direnak, baldin eta patroiekin lotura dutela uste bada artikuluko honen a) letran jasotakoarekin bat etorritz.

VIII. ATALA PATROIAREN ESKUBIDEAK ETA AHALMENAK

27. artikulua. Informazioa emateko eta ikuskapenak egiteko ahalmenak

Patroiak ahalmen osoa du Fundazioaren gaineko edozein informazio mota jasotzeko, beraren liburuak, erregistroak eta dokumentuak aztertzeko eta operazio sozialen aurrekariak ikertzeko, bai eta instalazioak ikuskatzeko ere.

Fundazioaren ohiko kudeaketa lanetan kalterik ez eragiteko, informazio-ahalmena gauzatuko da Patronatuaren presidentearen bitartez, eta berori egon ezik, idazkariaren bitartez. Presidenteak zein idazkariak patroiaaren eskaera artatuko dute, eta eskatutako informazioa helarazi egingo diote. Halaber, egokien irizten dieten solaskideak jarriko dituzte bere esku eta, era berean, erabakiak hartuko dituzte patroiak gauzatu nahi dituen ikuskapenak edo azterlanak bertatik bertara egin ditzan.

28. artikulua. Adituen laguntza

Eginkizunetan laguntza izate aldera, Patronatuak adituen laguntza kontratatu edo eskatu ahal izan du bileretarako. Adituak izan daitezke lege aholkulariak, kontabilitate aholkulariak, finantza aholkulariak edo bestelako adituak.

Adituen presentzia eskatzeko, garrantzi eta konplexutasun handiko gaiak egon behar dira tartean, eta kargua aurrera eramateko ezinbestekoak izan behar dira.

Aditua kontratatzeko erabakia presidenteari helarazi behar zaio. Presidenteak erabakia bertan behera utzi ahal izango du baldin eta honako kasuren bat egiaztatzen badu:

- a. Ez da beharrezkoa adituaren presentzia eginkizuna aurrera eramateko.
- b. Kostua ez da zentzuduna arazoaren garrantziaren aldean.
- c. Eskatu nahi den laguntza teknikoak Fundazioaren adituek eta teknikoek ere eman ahal dute.

29. artikulua. Patroiaren soldata

Patroiek ez dute soldatarik jasoko lan hori egiteagatik.

Fundazioak aseguru poliza bat kontratatuko du, erantzukizun zibileko aseguru duena, Patronatuaren kide guztientzat. Poliza horrek legezko estaldura eskainiko die Patronatuaren kideei edozein gatazkaren aurrean.

IX. ATALA GOBERNU KORPORATIBOA

30. artikulua. Gobernu korporatiboaren txostena

Patronatuak argitaratu beharko du, Fundazioaren web orrian, gobernu korporatiboaren gaineko informazioa.

Dokumentu horrek zehatz-mehatz azalduko du nolako egitura duen Fundazioaren gobernu-sistemak eta nola funtzionatzen duen. Edozelan ere, gobernuaren txostenak, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko du:

1. Fundazioaren Patronatuak duen egitura, osaketaren gaineko informazioa, Patronatuaren antolakuntza eta funtzionamendu arauak, identitatea eta kideen soldata.
2. Erantzukizun Korporatiboaren Politika, RSC
3. Aurrekontuak eta berorren jarraipen ekonomikoa
4. Kudeaketa Plana. Aurrera eramandako proiektuak eta zerbitzuak
5. Jarduerari buruzko jarraipen-datu nagusiak
6. Ingurumeneko politika
7. Fundazioaren arriskuen mapa

I. ERANSKINA

KONPROMISO-ADIERAZPENA

.....jaun/andreak hitz ematen du ELIKA Fundación Vasca para la Seguridad Agrolimentaria, ELIKA Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioko Patroi gisa, betebehar eta eginkizun hauek beteko dituela:

- Fundazioaren ordezkari izatea eta fundazioaren xedeak gauzatzeko beharrezkoak diren eskuduntzak erabiltzea, Estatutuetan xedatutakoarekin bat. Horretarako, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratu beharko ditu.
- Jarduera ildoetara jarraitzen zaiela bermatzea, ELIKAN gobernu arduratsua gauzatu dadin, gardentasunari, iraunkortasunari eta Elikagaien Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Politikarekin zerikusia duen guztiari dagokienez.
- Fundazioaren kudeaketa bideratzea eta kontrolatzea, baloreen sorkuntza maximizatzeko.
- Gizarte interesak erdiesteko beharrezkoa den arduraz jokatzeko, Fundazioarekiko leialtasun-betebeharra gauzatzeko. Bereziki, honako hauek bete beharko ditu:
 - a. Beharrezkoa den denbora eta ahaleginak eskaintzea Fundazioari, honen administrazioak proposatzen dituen gaiak era eraginkorrean jarraitu ahal izateko; eta horretarako beharrezkoa den informazioa biltzea.
 - b. Patronatuaren bileretara joatea konpromiso pertsonal gisa, eta erabakietan parte hartzea era aktiboan. Horrela, berak duen iritzia eraginkorra izango da erabakiak hartzeko momentuan.
 - c. Fundazioaren Patronatuak agintzen dion edozein lan betetzea, betiere dedikazio konpromisoarekin bat etorritik gero.
 - d. Fundazioaren kudeaketan ager litezkeen irregulartasunak ikertzea eta arrisku egoerak zaintzea.
 - e. Oro har, legeak eta araudiek zehaztutako betebeharrak betetzea interes sozialari dagokionez. Eta legearen, araudi sozialaren edo interes sozialaren kontrako akordioei uko egitea. Era berean, kontra agertuz gero, aktan jaso dadila eskatzea interes hori babeste aldera.
- Sekretua gordetzea konfidentzialak diren informazioei buruz. Eta, derrigor, isilpean gordetzea datuak, txostenak edo ezagutzen dituzten aurrekariak. Horrelako informazioa ezin izango diete hirugarren pertsonari jakinarazi, ez eta dibulgatu ere, interes sozialean eragin kaltegarria sortu ahal dutenean, kargua utzi eta gero ere ez.
- Unean-unean informazioa helaraztea Fundazioari, erabakiak hartzeko eragina izan ahal duten gai zehatz guztiei buruz.
- Jakinaraztea Fundazioari zer nolako aldaketak gertatu diren patroia horren lan egoeran, baldin eta aldaketa horiek baldintzatu egiten badute patroia horren lana edo eginkizuna Fundazioaren barruan edo interes-gatazkarik sorrarazi ahal badute.
- Horrezaz guztiaz gain, jakinaraztea Fundazioari zer nolako erreklamazio judizial, administratibo edo bestelakoetan egon den inplikaturik, baldin eta, horiek duten garrantziagatik, eragin kaltegarria izan badezakete Fundazioaren ospean.
- Bere eta berarekin lotura duten pertsonen interesen eta Fundazioaren interesen arteko gatazka egoerak ekiditea. Horiek ekidin ezin badira, Patronatuari jakinaraztea. Zehatzago adierazita:

Patroiak uko egin beharko dio parte hartzeari berarekin lotura zuzena edo ez-zuzena duten gaietan, betiere horretarako erabakietan parte hartu behar badu.

Patroiak ezin izango dio Fundazioari eskaini lan zerbitzurik eta merkataritza zerbitzurik, ez zuzenean ez zeharka, ez baldin badu aldez aurretik jakinarazten interes-gatazka egoera sor litekeela eta Patronatuak zerbitzu hori onartzen badu.

Patroiak ezin izango du baliatu Fundazioaren negozio aukerarik ez bere onerako, ez berari loturiko pertsonen onerako. Negozio aukeratzat hartuko dira Patroiak karguaren ondorioz edo Fundazioaren bitartekoak edo informazioa erabiliz sortu edo ezagutu duen merkataritza inbertsio edo eragiketaren bat egiteko edozein aukera.

- Presidenteari jakinaraztea gehiegikeria edo ez-betetzereen baten berri badu; batik bat, informazio garrantzitsua edo pribilegiatua erabiltzeari buruzkoa bada.
- Ez erabiltzea Fundazioaren izena edo Patroi karguaz ez baliatzea bere kontura edo berari loturiko pertsonen kontura eragiketak egiteko.

Sin.